

Unibertsitate Masterra Bigarren Hezkuntzako Irakasletzan

Master Amaierako Lana

2021-2022

**GAZTEEN HIZKERAREN EZAUGARRIAK:  
EUSKARAZ “GAIZKI” HITZ EGITEN IKASTEN.**

upna

Universidad Pública de Navarra  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

**Oier Balda Vidaurre**

**Ikaslea**

Oier Balda Vidaurre

**Izenburua**

Gazteen hizkeraren ezaugarriak: Euskaraz “gaizki” hitz egiten ikasten.

**Masterra**

Unibertsitate Masterra Bigarren Hezkuntzako Irakasletzan

**Ikastegia**

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

**Zuzendaria**

Orreaga Ibarra Murillo

**Saila**

Giza eta Hezkuntza Zientziak Saila

**Ikasturtea**

2021/2022

## Laburpena

Nafarroan, eta Euskal Herrian oro har, euskararen erabilera informala gero eta xumeagoa da datuek erakusten dutenaren arabera. Horrek gazteen hizkeretan gaztelaniak gero eta paper garrantzitsua jokatzeko ekarri du, kode-alternantzia eta kalkoak bezalako fenomeno linguistikoen erabilerari esker. Gazte hizkera horien harira, aldeko eta kontrako iritziak askotarikoak dira, baina argi geratzen da gazteen ikuspuntutik euskara jasoak gabezia nabarmena duela modu kolokialean hitz egiterakoan.

Hori lantzeko, bi unitate didaktiko baten proposamena egin da, ikasleei hainbat baliabide kolokial eskainiz eta euskara informala lantzeko helburuarekin.

Hitz gakoak: *euskararen erabilera, gazteen hizkera, kode-alternantzia, kalkoak, adierazkortasuna.*

## Resumen

En Navarra, y en Euskal Herria en general, el uso informal del euskera es cada vez más modesto, a tenor de lo que muestran los datos. Eso ha supuesto que el castellano juegue un papel cada vez más importante en las lenguas juveniles, gracias al uso de fenómenos lingüísticos como la alternancia de código y los calcos. Al hilo de esos lenguajes juveniles, las opiniones a favor y en contra son diversas, pero queda claro que, desde el punto de vista de la juventud, el euskera formal adolece de una notable carencia a la hora de expresarse coloquialmente.

Para trabajar ese aspecto se ha realizado una propuesta de unidad didáctica, ofreciendo diferentes recursos coloquiales a los alumnos y con el objetivo de trabajar el euskera informal.

Palabras clave: *uso del euskera, jerga juvenil, alternancia de código, calcos, expresividad.*

## Abstract

In Navarre, and in the Basque Country in general, the informal use of Basque is increasingly modest according to the data. This has meant that Spanish plays an increasingly important role in youth languages, thanks to the use of linguistic phenomena such as code-switching and calques. There

are different opinions for and against these youth languages, but it is clear that, from the point of view of young people, formal Basque suffers from a notable lack of colloquial expression.

In order to work on this aspect, a proposal for a didactic unit has been made, offering different colloquial resources to the pupils and with the aim of working on informal Basque.

*Key words: use of Basque, youth slang, code-switching, calques, expressiveness.*

## AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	5
2. ARLO TEORIKOA: GAZTEEN HIZKERA NAFARROAN.....	6
2.1 NAFARROAKO TESTUINGURU SOZIOLINGUISTIKOA .....	6
2.2. GAZTEEN HIZKERA.....	8
2.2.1. Ezaugarriak.....	9
2.2.2. Faktore eragileak.....	11
2.2.3. Funtzioak.....	12
2.2.4. Jarrerak .....	13
3. ARLO PRAKTIKOA: UNITATE DIDAKTIKO BATEN PROPOSAMENA.....	14
3.2. TESTUINGURUA.....	15
3.2.1. Auzoa.....	15
3.2.2. Ikastetxea .....	16
3.2.3. Ikasgelak.....	17
3.3. METODOLOGIA .....	17
3.4. BALIABIDEAK .....	19
3.5. JARDUERAK .....	20
3.6. EMAITZAK.....	23
3.6.1. Galdetegiaren emaitzak .....	23
3.6.2. Behaketaren emaitzak .....	32
3.6.3. Saioen balorazioa .....	33
3.6.4. Helburu eta hipotesien balorazioa.....	34
4. ONDORIOAK .....	35
5. BIBLIOGRAFIA.....	36
ERANSKINA: <i>Euskaraz “gaizki” hitz egiten ikasten unitate didaktikorako fitxa</i> .....	38

## 1. SARRERA

Euskarak aldaera ezberdin asko ditu, eta lan honetan horietako bat aztertuko da: gazteen hizkera. Azken urteotan gero eta gehiago aztertu izan da hizkera mota hau. Hizkera mota horien ezaugarri nagusietako bat beste hizkuntzek haiengan duten eragina da, hots, euskararen kasuan gaztelaniak uzten duen aztarna. Euskararen aldaera horiei buruzko askotariko iritziak aurkitu daitezke, bai alde eta baita kontra ere.

Lanaren egiturari dagokionez, bi zati nagusietan banatuko da: alde batetik, arlo teorikoa; eta bestetik, arlo praktikoa.

Arlo teorikoan, gazte hizkerari buruz orain arte aztertu dena azalduko da, hainbat alderdi ezberdini garrantzia emanez. Gazte hizkeraren gorabeherak ulertzeko xedearekin, egingo den lehen gauza Nafarroako testuinguru soziolinguistikoaren ikuspegi orokor batekin hasiko da. Gero, gazte hizkeraren ezaugarri nagusiak sakonki aipatuko dira, nahiz eta beste batzuk ere ikusten diren. Jarraian, gazte hizkeraren esparru sozialari helduko zaio, hainbat faktore eragile aipatzeko. Gazteen hizkerak dituzten ezaugarri nagusietako bi aipatuko dira sakontasun gehiagoz: kode-alternantzia eta kalkoak. Amaitzeko, hizkera horien inguruan entzuten diren iritzi eta jarrerak aurkeztuko dira, betetzen dituzten funtzioak aztertu ostean.

Bigarren zatian, praktikoa izango dena, unitate didaktiko bat proposatuko da euskara esparru informalean ere sustatzeko ideiarekin. Gazte hizkera horien alde gehien entzuten den argudioetako bat, euskararen berezkotasun falta izan ohi da, eta hori lortzeko gaztelaniara jotzen dute hiztun askok, are gehiago gazteen kasuan. Hori oinarritzat hartuta, unitate didaktikoak hainbat ariketa eta jarduera proposatuko ditu ikasleek esparru informalean aritzeko baliabideak izan ditzaten. Izenburuak dion bezala, helburua ikasleek "gaizki" hitz egiten ikastea izango da, hau da, kaleko hizkeran gaztelaniak betetzen dituen hainbat funtzio euskarak egitea lortzea. Ikasleei, gainera, galdetegi bat helaraziko zaie, non euskarari eta bere erabilerari buruz duten iritzia eskatuko zaien, datu bilketa bat egiteko eta ariketak prestatzerakoan informazio hori kontuan izateko. Gero unitate didaktikoaren azalpena egin da, saio bakoitzean zer landuko den azalduz.

Amaitzeko, galdetegiaren eta unitate didaktikoaren erantzunak aztertu dira modu sakon batean, ondorioak aipatu baino lehen. Ondorioen atalean, bai arlo teorikoko baita arlo praktikoko konklusioak aurkeztuko dira.

## 2. ARLO TEORIKOA: GAZTEEN HIZKERA NAFARROAN

### 2.1 NAFARROAKO TESTUINGURU SOZIOLINGUISTIKOA

Nafarroa bezalako eremu batean ezinbestekoa da gaztelaniaren eragina kontuan izatea. Datuek erakusten duten bezala, gaztelania da Euskal Herria osoan gehien hitz egiten den hizkuntza (Soziolinguistika Klusterra, 2017), eta euskara bigarrena den arren, haien arteko ezberdintasuna handia da. Soziolinguistika Klusterrak 2016an egindako kale neurketaren arabera, gaztelania da hizkuntza erabiliena biztanleriaren % 76,4-arentzako.




Euskara, berriz, % 12,6-ak erabiltzen du gehien. 2006ko datuekin konparatuz, euskararen erabilerak beherakada xume bat jasan zuen hamar urte horietan, 2006an % 13,7-ak erabiltzen baitzuen euskara beste hizkuntzen gainetik.

Adinaren araberako bereizketa eginez, euskaldun gehienak (ezagutzari dagokionez) gazteak direla aipatzea komeni da. Zehazki, 16-34 urte bitarteko hiztunak Nafarroako euskaldun kopuru osoaren % 44,6-a dira. Datu horietan hezkuntzak du eraginik handiena, baina ezagutza hori ez da hitz egiteko erraztasunaren adierazle. Nafarroako euskaldunen % 51,1-a erdal elebiduna da, % 25,7-a elebidun orekatua eta % 23,2-a euskal elebiduna. Erdal elebidunek erraztasun edo maila altuagoa dute gaztelaniaz hitz egiteko, eta euskal elebidunek kontrakoa. Elebidun orekatuen kasuan, erosotasun berdina aurkezten dute bai euskaraz eta baita gaztelaniaz ere. Gazteen kasuan, ehunekoek bera egiten dute modu esanguratsu batean. 16-24 adin tarteko hiztunen artean erdal elebidunak % 62,6-a dira, elebidun orekatuak % 20,6-a eta euskal elebidunak % 16,9-a.

Lurraldez lurralde aztertzean, ordea, igoera xume bat ikusten da Nafarroan. Ehunekoa baxuagoa den arren Euskal Herrikoarekin konparatuz, joera positiboa da; 2006an % 5,7 izatetik, 2016an % 6,7 izatera. Garrantzitsua da Nafarroaren kasuan euskararen ofizialtasunaren egoera kontuan izatea, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) ez bezala, ez baita ofiziala lurralde osoan.

Hiru eremu linguistiko bereizten dira Nafarroan: euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna. Hainbat herri eremu batetik bestera igaro dira irudian ikusten den bezala, eta normalean aldaketa horiek euskararen onerako izaten dira, hau da, eremu ez-euskaldunetik mistora edo eremu mistotik

euskaldunera igarotzen dira, salbuespenak salbu. Eremu euskaldunean euskara eta gaztelania ofizialak dira, eta eskubide berdinak dituzte, EAEn gertatzen den moduan. Eremu mistoan, Iruñerria eta ingurua hartzen dituena, euskarari hainbat eskubide aitortzen zaizkio, hezkuntzan eta administrazioan batez ere, baina ez da ofizialtzat hartzen. Azkenik, eremu ez-euskaldunean euskara ez da ofiziala eta ez du eskubide berezirik. Horrek ez du esan nahi euskararik erabiltzen ez denik, baina esparru publikoan ez duela laguntzarik jaso orain dela gutxi arte, eta ondorioz, hezkuntzan



adibidez euskara ikasteko esparru pribaturako jotzeko beharra zegoen. Azken urteotan, ordea, euskarazko hezkuntza publikoa martxan jarri da eremu ez-euskaldunean, eta eskaintza oraindik ere urria den arren, aurrera pausu nabarmena da etorkizunari begira.

Egoera horrek argi uzten du Nafarroan gaztelania dela hizkuntza nagusia, eta euskararen erabileran eragin zuzena du horrek. Hiztun guztietan nabaria dan arren, gazteen kasuan gero eta argiagoa da gaztelaniak haien euskal hizkeran paper garrantzitsua hartzen duela. Nafarroan, orokorrean, gazteen erabilerak % 0,8 gora egin duen arren, Iruñerrian datuak bestelakoak dira. Iruñerrian datu makurrena gazteena da, % 27,2-ak ezagutza baitu, baina % 1,8-ak besterik ez du erabiltzen (Kasares, 2007, Kasaresek aipatua, 2010). Hori da datu larrietako: bat ezagutzaren eta erabileraren arteko desfasea (Ibarra, 2011a).

Halaber, 2000 urtean hasitako hizkuntza politikak euskararen normalizazioaren bidean trabak besterik ez dituzte jarri. Arau murriztaile ugari ezarri ziren eta Hizkuntza Gutxituetarako Bulego Europarrak berak Nafarroako hizkuntza politika Europaren kontraktatzat hartu zuen: “(...) *the first substantial regression of policies for regional minority languages in eu Member State*” (Brezigar, 2001, Kasaresek aipatua, 2010). Kasaresek (2010) dioenez, hizkuntza politika horien harira sortutako diskurtso instituzional horrek bi helburu izan ditu: euskararako motibazio pragmatikoa ahultzea eta euskararako motibazio identitarioetarako lekurik ez uztea. Ondorioz, motibazio ezak euskaldunen



hazkunde demografikoan eragin negatiboa izan du, eta euskararen aldeko jarrera negatibo bezala irudikatzen saiatu dira. Euskara inposaketa bat delako ideia zabaldu da, eta, horrekin loturik mehatxagarria dela nafartasuna eta bake-sozialarentzat.

## 2.2. GAZTEEN HIZKERA

Hasi aurretik, Amonarrizek (2008) dioten bezala ezin da gazte hizkera bakarrari buruz hitz egin, gazte hizkerez baizik. Gazte hizkera horietan nabarmena da azken urteotan gertatutako eraldaketa soziolinguistikoaren eragina, eta ezaugarri bereizgarri asko topatu daitezke; bai modu kuantitatiboan, baita kualitatiboan ere (Amonarriz, 2008: 168). Kontuan izan beharrekoa da, beraz, urteak igarotzen diren heinean testuinguru soziolinguistikoa aldatzen doala, eta horri lotuta hizkuntza bakoitzaren errealitatea. Hizkera horien barruan, oro har, gaztelaniaren erabilera dela adierazgarri nagusia pentsatu ohi da, baina ez da bakarra. Euskalkietan batuaren eragina nabaritzen da, gaztelaniarekin gertatzen den moduan, eta horretaz gain, bakoitzaren hizkera propioa (idiolektoa) kontuan izan behar da, besteak beste.

Euskararen kasuan azken urteotan asko aipatzen ari den auzia da gazteen hizkerarena, askoren ustez euskararen kalterako direnak, gehienetan ez baita hizkuntzaren garbitasuna errespetatzen. Beste batzuen ustez, ordea, hizkera horiek normalak dira munduko edozein hizkuntzatan, eta horrela ikustea komeni da. Gazteek, Ibarrak (2011a) dioten bezala, zenbaitetan euskara gaizki hitz egiten dutela pentsatzen dute, hizkera hori ez baita irakatsi zaien euskara batu garbia.

“Akusatzaile askoren hizkera arrunta defendatzeko gogoak ere horretara behartu ninduen, hizkera hori gutxietsi eta beste batzuk goستن baitituzte, batez ere oc hizkera, hori bestea baino ederragoa eta hobe delakoan, eta horretan ez dute egirik esaten”. (Alighieri, d.g. Ibarrak aipatua, 2011a: 99).

Aipu horrek ondo islatzen du euskararekin gertatzen ari dena; gazteen hizkerak edo hizkera informalak gutxietsi eta seinalatzen dira. Epe luzean, horren eragina, ordea, kontrakoa izan daiteke, eta euskararen onerako zerbait lortu ordez, euskara kaltetzea eragin dezakete. Txepetxek (1991) euskararen erabilera deskribatzeko edalontzien metafora erabili zuen, gazteen hizkera horietan ere aplikatu daitekeena. Hiru edalontzi desberdin daude, hurrenez hurren: lehenengoan, motibazioa; bigarrenean, ezagutza; eta azkenekoan, erabilera. Lehenengo edalontzia betetzen den arte, bigarrena ez da beteko, hau da, erabilerara iristeko lehenengo motibazioa izan behar da eta gero ezagutza.

Jarrera horiekin lortzen dena kasu askotan, motibazioa akabatzea da, eta ondorioz, erabilerara ez iristea.

Gazteen hizkera horietan hainbat faktorek eragiten dute, besteak beste: atxikimendu soziala, gazteen egoera historikoa, egoera psikikoa, gazteen sexua eta etnia (Ibarra, 2011a). Oro har, edozein hizkuntzaren aldaerari eragiten diezaioketen faktoreek eragiten diete gazteen hizkerari ere bai. Mende honen hasierara arte gazteen hizkera ahozotasunera mugatzen zen fenomenoaren (Amonarriz, 2006), baina teknologia berrien sarrerarekin gizartean idatzizkora ere igaro da. Gazteen hizkeraren ezaugarri nagusienetako bat, aurrerago aztertuko dena, diskurtsoari adierazkortasuna ematea da, horretarako hizkuntzak nahastuz edota laburdurak erabiliz, hots, euskara jasotik aldenduz.

Euskararen muga nagusia esparru informalean erabilgarria izatea da, gabezia asko aurkezten baititu gazteen iritziz. Gabezia horiek, gaztelania erabiliz konpontzeko joera gero eta zabaldua dago, baina hori ez da gazteekin bakarrik gertatzen den zerbait. Gaztelaniaren itzala belaunaldiz belaunaldi handituz doan arren, esan beharra dago helduen kasuan ere asko gertatzen den fenomenoaren dela. Gazte hizkera horiek soziolekto bat diren heinean aldatuz joango dira, eta ziurrena da gaztarotik kanpo eta heldutasunera igarotzeko bidean erabilera linguistiko horiek galduz joango direla, beraz, behin-behineko aldaerak direla esan daiteke. Hala ere, ezaugarri horietako asko helduaroan ere mantenduko dira (Ibarra, 2011a).

Ahozko hizkera gehiago aztertu den arren, idatzizkoa ere ikerketen oinarri izan da, azken urteotan batez ere (ikusi Amonarriz, 2008; Perez & Zulaika, 2016; Ibarra, 2019). Gazteen hizkera aztertzeko oso baliogarria izan daiteke gaur egun WhatsApp eta beste hainbat sare sozialetatik hartutako elkarrizketak aztertzea. Gazteek egunero modu informal batean erabiltzen dituzten komunikatzeko tresnak dira, eta ahozkoan ikusten ez diren ezaugarriak ere aurki daitezke, esan den bezala. Gainera, idatziz idatzera nolakoa den aztertu daiteke, eta laburtzapenak bezalako ezaugarriak aurkitzen dira.

### **2.2.1. Ezaugarriak**

Bai idatziz, baita ahoz ere, gazte hizkera hauen ezaugarri nagusia adierazkortasuna bilatzea da, hau da, euskara hutsak hainbat esparrutan dituen hutsuneak betetzea. Informalki batez ere, euskarak indarra galdu du, eta ligatzeko edo biraoak esateko, adibidez, urritan entzungo dugu gazteen ahotan. Oro har, emozioekin lotutako edozer adierazteko gaztelaniak hartu du protagonismoa, gazte hizkera hauen ezaugarri gehienetan ikusiko den bezala.

### 2.2.1.1. Kode-alternantzia

Euskaldun gazteen hizkeren ezaugarri nagusienetako bat euskara eta gaztelania nahastea da, hau da, kode-alternantzia (KA). Fenomeno honen eraginez sortu da modu kolokialean “euskañol” bezala izendatu den fenomeno, etimologikoki *euskara* eta *español* hitzen batuketa dena, hizkera horren izaera islatuz. KA hizkuntzen ukipena gertatzen den testuinguruan oso fenomeno linguistiko arrunda da, eta hiztun elebidun edo eleanitz batek elkarrizketa berdinean egiten duen bi hizkuntz edo gehiagoren erabilerari deritzo (Dussias, Kroll, Fricke & Johns, 2020). Aurreko puntuan datuekin azaldu den bezala, argia da gaztelaniak euskararen duen eragina handia dela, eta horrek zuzeneko eragina du kaleko hizkeraren alderdi linguistiko guztietan, lexikotik syntaxira, eta hiztun gazteenetatik zaharretara. Euskarak gaztelania eta frantsesa bezalako bi hizkuntza erraldioen artean bizitzeko zorigaitza izan du, eta alferrikakoa litzateke pentsatzea haien presentziak euskararen eraginik ez duela ekartzen. Adierazkortasuna bilatzeko helburuarekin, gazte askok gaztelaniara jotzeko joera izaten dute (Amonarriz, 2008).

Hainbat taxonomia aipatu izan dira KAri dagokionez, baina erabiliena eta hurbilketa linguistikoa duten hainbat lanetan agertzen dena Poplackena (1980) da. Berak hiru KA mota bereizten ditu: etiketa (*tag*), perpaus barnekoa (*intra-sentential*) eta perpaus artekoa (*intersentential*).

Etiketa motako alternantziak interjekzioak hartzen ditu beregain, hots, diskurtso orokorra euskaraz bada etiketak gaztelaniaz izango dira adibidez. Honek ez du esaldien egituraren eraginik, normalean hitz solteak bakarrik direlako bigarren hizkuntzan ageri direnak. Ibarak (2011b: 281) ondoko etiketen adibideak aipatzen ditu beste batzuen artean euskara eta gaztelaniaren arteko KA adibideen artean: *bueno, sin más, es que, vale, o sea, qué va, claro, ya está, según, igual, seguro, porque, ya, yo qué sé, ze pasada...* (1) adibidean mota honen erabilera ikusten da. Hala ere, batzuetan muga lausoa da, eta zaila egiten da identifikatzea KA edo mailegua den.

(1) ...ta egin nituen lanak ta *ya está*. (Ibarra, 2011, 282. or.)

Bigarren mota perpaus barneko alternantzia dugu. Funtsean honek esan nahi duena da hizkuntza aldaketa perpaus gramatikal berdinen barnean gertatzen dela, osagaien batean edo batzuetan aldaketa gauzatuz. KAren inguruko azterketek erakutsi dute toki batzuk beste batzuk baino egokiago direla KA ager dadin, hots, murriztapenak daudela. Honek hiztun elebidunari bi hizkuntzak menperatzea eskatzen dio beraz, aldaketa okerrik ez egiteko eta perpausaren egitura ez hausteko, ez lehenengo hizkuntzan ezta bigarren hizkuntzan ere (Bullock & Toribio, 2009).

(2) Es que zuk egin zenuen *la versión extendida* del ibilaldi. (Lantto, 2012, 36. or.)

Azkenik, perpaus arteko alternantzia mota izenak berak dioen bezala ez da perpausean bertan gertatzen, kasu honetan perpaus osoak alternatzen dira beste hizkuntza batean (Ibarra, 2011). Adibidez, euskarazko diskurtso batean gaztelaniazko perpaus oso bat txertatzea mota honetakotzat joko genuke, (3) adibidean ikusten den bezala. Mota honetan ez dira hizkuntzen gramatikak nahasten.

(3) Nik nahiago dut ematea dirua horrela... *que no cunde que te saque la navaja...* (Ibarra, 2011, 284. or.)

### 2.2.1.2. Kalkoak

Ohikoenak diren ezaugarrien barnean kalkoak agertzen dira, kolokialki *erdarakada* bezala ezagutzen direnak. Kasu honetan, ez da gaztelania erabiltzen, baina akats horien sortzailea da. Beraz, erdarakadak hizkuntzen arteko ukipenaren ondorio diren arren, ez dira KAtzat hartu behar. Gaztelaniatik itzulpen literalak egiten direnean, euskaran duen esanahia kontuan izan gabe, erdarakada bat egiten dela esaten da. Adibidez, *Mikelek ilea hartu dio Aneri* esaldian, *ilea* hartu gaztelaniako *tomar el pelo* esateko erabiltzen da, nahiz eta euskaraz espresio hori ez den horrela. Zuzen esateko *Mikelek adarra jo dio Aneri* erabili beharko litzateke, adibidez. Gaztelania ezagutzen duen hiztun batekin hitz egiteko orduan, gehienetan ez da arazorik izango, baina hiztunak gaztelania ez ezagutzekotan, ulermena ezinezkoa izango da. Erdarakadak ez dira horrelako espresioekin bakarrik gertatzen, maila sintaktikoan ere aurkitu daitezke. Ikusi, esate baterako, *Dago Jone hemendik?* esaldia, non *¿Está Jone por aquí?* esaldiko egitura kopiatzen den, egokia *Jone hemen (al) dago?* den arren. Erdarakadak, euskañola bezala, hiztun guztiengan ikusten dira, baina oso ohikoak dira batez ere euskara ikasten dabiltzan hiztunengan.

### 2.2.2. Faktore eragileak

Hainbat faktore dira gazteek haien diskurtsoan gaztelania erabiltzearen eragile, bai hiztunari dagokionez baita hizkuntzari berari dagokionez ere. Beste asko dauden arren, horietako batzuk aipatuko dira.

Hizkuntzaren kasuan faktore sozial eta linguistikoak hartu behar dira kontuan, hau da, hizkuntza horren testuingurua eta hizkuntzaren ezaugarriak. Modu logikoan, hizkuntzen arteko ukipena ez da beti maila berean ematen, eta beraz, intentsitateak ere garrantzia nabarmena du KA

eta antzeko fenomenoak sortzeko orduan. Hizkuntzaren ikaskuntza kontuan izan beharreko zerbait da, askotan akastuna baita, edo gabeziak izaten baititu. Hizkuntzaren ezaugarriak noraino barneratu diren sistema linguistikoan aztertzea komeni da, hots, ea hartzailea den hizkuntzak beste hizkuntzaren ezaugarriak beregain hartu dituen. Amaitzeko, kontuan izan behar da bi hizkuntzen arteko distantzia tipologikoa norainokoa den. Antzekoak diren hizkuntzetan errazagoa da txandakatzea ematea, tipologiko aldetik urrun daudenekin baino errazagoa gutxienez.

Hiztunei dagokienez, alderdi sozial asko dira eragina dutenak. Lehenik eta behin, hiztunak hizkuntza batekiko duen jarrera. Motibazioa handia bada, saiatuko da gaztelania ahalik eta gutxien erabiltzen, baina interes handirik ez badu, ikasleen kasuan batez ere, gaztelaniara jotzeko joera erautsiko dute. Logikoa denez, garrantzia handikoa da bigarren hizkuntzaren jabeak noiz eman den, eta hizkuntza horren maila zer nolakoa den. Adinarekin zerikusia izaten du askotan KA bezalako fenomenoaren agerpenak, hala ikusi da aurretik ere gazteen hizkerari dagokienean. Beste faktore aipagarrietako bat estatus soziala da, estatus horren arabera, eta horri lotuta dagoen testuinguru sozialaren arabera, hizkuntza ohiturak aldatzen baitira.

Amaitzeko, Ibarrek (2011a) beste hainbat faktore aipatzen ditu, gazte hizkeretan zuzenean eragiten dutenak: atxikimendu soziala, gazteen egoera historikoa, egoera psikikoa, gazteen sexua eta etnia. Laburbilduz, argi ikusten da, hizkuntza aldetik hainbat faktorek eragina duten arren, oro har, faktore sozialek hartzen dutela garrantzirik handiena.

### **2.2.3. Funtzioak**

Gazteen hizkerak hainbat funtzio linguistiko betetzen ditu, baina askotan funtzio horiek hizkeraren ezaugarri zehatzetara atxikitzen dira. KAren kasuan gertatzen da adibidez, horrek betetzen dituen funtzioetariko gehienak gazteen hizkerari aplikatu bailekizkieke. KA euskañolaren ezaugarri nagusienetariko bat den heinean, hainbat funtzio ezberdin aipatuko dira. Funtzio jakinak betetzeak, zeharka bada ere, KA hiztunaren hautu bezala kokatzen duen teoria indartzen du. Txandakatzea funtziorik gabe egiten bada, orduan hizkuntza maila baxuaren adierazle izan daiteke.

Ibarraren (2011b) eta Muñoaren (2003) lanetan oinarrituz, hainbat funtzio zerrendatuko dira euskañola noiz eta zergatik erabiltzen den ulertzeko helburuarekin, baina horietaz gain beste asko aurki daitezke.

- *Erreferentzia* da lehenengo funtzioa, eta esan nahi du hiztunak hitz bat ezagutzen ez duenean beste hizkuntzara jotzen duela. Ohikoenetako bat da, batez ere hizkuntza batean bestean baino maila baxuagoa duten hiztunen artean. Lehenago aipatu den esparru akademikoko adibidea hemen sartuko litzateke.
- *Identitatea* markatzearen funtzioak garrantzia handia hartzen du testuinguruaren arabera. KA hizkera askoren adierazgarri bilakatu da, eta hizkera horien hiztunek beren marka pertsonaltzat hartu dute. Euskañolaren kasuan ikusi da azkenaldian hainbat tokitan erabilera horrela ikusten hasi dela, hots, gazteen identifikatzaile moduan. Kasu honetan, funtzioak hizkuntzaren alde linguistikoarekin zerikusi apala du, eta testuinguru soziolinguistikoa da eragile nagusia. Identitatearen funtzioak taldekatzeak egiteko balio du askotan, komunitate bat sortuz hizkera hori hitz egiten dutenen artean.
- Euskañolaren kasuan gehien entzuten den funtzioetako bat da *espresibitate gehiago lortzearena*. Euskarak eremu informalean gabeziak dituela defendatuz, hainbatek gaztelaniaren edo euskañolaren aldeko hautua egiten dute hainbat egoeratan: enfasia ematea, haserrea, humorea edo ironia adieraztea, besteak beste. Gehienbat, emozioak transmititzeko edo zerbaiti indar handiagoa emateko momentuetan euskara baztertzeke joera dago.
- Beste funtzioetako bat *errepikapena* da, hau da, beste hizkuntza batean esandako zerbait hitzez hitz erreproduzitzea hizkuntza horretan.
- Espresibitatearekin lotuta, funtzio *konnotatiboa* dago, esan nahi denari balio afektiboa ematea bilatzen duena KA erabiliz. Horretarako, txikigarriak erabiltzen dira askotan. Gainera, hiztunarekiko hurbiltasuna bilatzen da honekin, edo gauza txarrak leuntzea (Gardner-Chloros, 2009).

KA motekin gertatzen den bezala, funtzio ezberdin asko aurkitzen dira KA erabiltzeko orduan. Aipatutakoak aukeratu ditut ongi deskribatzen dutelako euskararen kasuan zertarako egiten den KAren erabilera. Funtzio horiek ikusita, ondorioztatu daiteke emozioekin eta espresibitatearekin lotuta dagoela gehienetan euskañolaren erabilera, euskarak esparru horretan batzuentzat dituen gabeziak betez nolabait.

#### **2.2.4. Jarrerak**

Euskañolaren (edo gazte hizkeren) inguruko iritziak askotarikoak dira gaur egun, baina bi korrante nagusi bereiz daitezke: aldekoa eta kontrakoa. Aipatu da jada iritzi orokorrak euskañola euskararen degradazioaren adierazle bezala ikusten duela, baina azken urteotan gazteen artean

honen aldeko iritziak sortzen hasi direla esango nuke kaleetan entzundakoa kontuan izanda, nahiz eta hipotesi propio bat besterik ez den.

Alde batetik, kontrako argudio nagusia aipatu berri dena da: degradazioaren adierazgarri dela. Horrekin esan nahi da euskañola erabiltzeak euskara baztertzen duela, gaztelaniaren onurarako. Gainera, luzaroan horrek izan dezakeen eragina euskararen galera dela defendatzen du kontrako iritziak. Alderdi estetiko eta funtzionaletik, hizkera itsusia dela esan ohi da, erabilera kolokialetik kanpo erabiltzeko aproposa ez dena.

Beste aldetik, aldeko hainbat argudio agertzen dira, gero eta gehiago entzuten direnak. Lehenengoa, hiztunak egiten duen hautu bat dela, hau da, nahiz eta euskara garbian hitz egiteko gai izan euskañola erabiltzea erabakitzen dutela. Horren harira, identitate marka bezala ulertu izan da hainbatetan, gazteen kasuan batez ere. Iruñean, adibidez, duela gutxi hasi da euskañola defendatzeko kaleko mugimendu bat hainbat lagun talde. Mugimendu horren ordezkari izan dira, adibidez, Chill Mafia musika taldeko kideak, hainbat elkarrizketetan defendatu baitute arro daudela euskaraz gaizki hitz egiteaz, eta pena baino, hirietan bizitzen den errealitatea dela. Talde horiek defendatzen dute euskañola dela haiek entzuten duten euskara, eta haien testuinguru soziolinguistikoak egitera bultzatzen dituenak. Bestaldetik, euskara, aldeko iritziak esaten duenaren arabera, formalegia da eremu informalean erabiltzeko orduan eta komunikazioaren funtzio asko betetzeko orduan motz geratzen da. Amaitzeko, euskara zuzena berez ateratzen ez den zerbait dela defendatzen dute, hitz egin aurretik pentsatu behar dena. Azken kasu honetan, ordea, lotuta egon daiteke hizkuntzaren mailarekin.

Amaitzeko, iritzi neutro bat dutenak ere badaude, hots, alde edo aurka ez daudenak. Ez da euskara garbia erabiltzea bezain onuragarria, baina euskarak modu batean edo bestean presentzia izaten jarraitzen du, hots, iritzi honen aldekoen ustez, euskañola ontzat ikusten ez duten arren, txartzat ere ez.

### **3. ARLO PRAKTIKOA: UNITATE DIDAKTIKO BATEN PROPOSAMENA**

#### **3.1. HELBURUAK ETA HIPOTESIAK**

Teoria alde batera utzita, bigarren zatiaren helburua unitate didaktiko baten proposamena egitea izango da. Aipatu da gazteek euskarari antzematen dioten gabeziarik handiena bere erabilera esparru informalean dela, eta horregatik, unitate didaktikoak hori sustatzea izango du helburu. Beste

modu batean esanda, gaur egun gaztelaniak duen papera euskañola mintzatzean, euskararekin betetzen saiatuko da, adibidez, biraoak botatzea, haserretzea edo ligatzea. Gazteek ikasi behar dute ikastetxean ikasitako euskara ez dela kaleko testuinguru guztietan erabiltzen den bera, eta erregistro ezberdinak bereizten direla. Hori lortzeko, hainbat jarduera proposatuko dira eta ikasleei baliabide ezberdinak eskainiko zaizkie, aurretik egindako galdetegi batean oinarrituz. Galdetegi horrek, beharrak eta gabeziak agerian uzteaz gain, Iruñeko institutu bateko errealitate soziolinguistikoa ezagutzen lagunduko du.

Lan honetan aurkeztuko den unitate didaktikoa Eunate BHI-n jarriko da praktikan, baina praktikara eraman aurretik hainbat hipotesi proposatuko dira, espero denaren arabera. Euskararen erabilerari dagokionez, aurreko esperientzia eta kaleko neurketak kontuan hartuz, espero da euskararen erabilera klasetik kanpo hutsala izatea. Normalean, Iruñea bezalako hirietan euskara esparru akademikora mugatzen da gazteen artean, eta kalera ateratzeko beharrik gabe, ikastetxeetako korridoreetan bertan euskara desagertzen da. Euskara informalarri dagokionez, zaila izango da unitate didaktiko motz batekin nabarmen hobetzea, eta seguruena da ikasleek arazoak izatea modu natural batean erabiltzeko orduan. Dena den, biraoak eta lexiko berria erabiltzen hastea espero da, gutxi izan arren, eta hasieran txantxa moduan egingo duten arren.

## **3.2. TESTUINGURUA**

### **3.2.1. Auzoa**

Txantrea Iruñeko iparraldean kokatzen den auzoa da. Iparraldean Ezkaba auzoarekin eta Antsoainekin du muga; ekialdean Burlatarekin eta Atarrabiarekin; hegoaldean Belosorekin eta Erripagainarekin; eta mendebaldean Arrotxapearekin eta Alde Zaharrarekin.


Gerra Zibilaren ostean hasitako berreskuratze planaren eskutik sortu zen Txantrea 1950eko hamarkadan. Gerraren ondorioetako bat landa-eremuko biztanle askoren emigrazioa izan zen Iruñera, etxebizitza berrien beharra sortuz. Auzoaren sorreratik auzolana eta auzo identitatea izan ziren aztarna esanguratsuak, auzolanari esker eraiki baitzen Txantrea. Bizilagunek, taldetan banatuta, eraiki zituzten etxe asko, eta gaur egunera arte iraun du elkartasun horrek. Elkarlana ez da gelditu, eta horri esker gau eskola bezalako ekimenak sortu ziren. Franko hil zenean egoera nahasia zegoen auzoan eta langile mugimenduak gora egin zuen, aldarrikapenak eta herri borrokak nagusituz, herri elkarteen eskutik.



Txantrea, urte askotan zehar, “auzo gatazkatsu” izenarekin ezagutu izan da, 80. hamarkadako gatazka politikoaren eta liskarren ondorioz. Hortik aurrera bizimodua lasaitu zen, eta 90. hamarkadan Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak hartu zuen garrantzirik handiena, horri esker mila etxebizitza berri eraiki baitziren auzoan.

Esan bezala, auzo sentimendu hori gaur egun ere nabaritzen da biztanleriaren artean, nahiz eta errealitatea oso desberdina den, eta iragan liskartsua atzean geratu den.

2020ko urtarrileko datuen arabera (Iruñeko Udala, 2020) 19952 biztanle daude auzoan, zeinetatik 9663 gizonetzkoak diren eta 10289 emakumezkoak. Adinari erreparatuz, eta grafikoan ikusten den bezala, kopuru handiena 40 eta 64 urte tartean kokatzen da, eta hortik beherako kasuan nahiko antzeko mantentzen da biztanle kopurua adin tarteen arteko konparaketa egitean. Biztanleria osotik 2199 dira etorkinak, hau da, % 11,02. Iruñeko beste auzo askorekin konparatuz, ez da oso datu altua.



**1** Iturria: Iruñeko Udala, 2020

### 3.2.2. Ikastetxea

Txantrea auzoan kokatzen da Eunate BHI. Bertan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa ikasten dira, beti ere D ereduari. Eunate 90. hamarkadaren bukaeran sortu zen, euskarako lerroaren arrakastaren ondorioz. 80. eta 90. hamarkadetan, aldaketa sozialei eta auzo borroka politikoei jarraituz, auzoak euskal lerro baten beharra defendatzen zuen. Hasiera batean, gaur egun IES Irubide bezala ezagutzen den ikastetxean integratu zen euskal ereduari, baina, esan den bezala arrakasta handia izan zuen eta horrek baliabide gehiagoren beharra agerian utzi zuen.

Behar horiek asetzeko, mojen komentu bat zena ikastetxe bihurtu zuten, gaur egun Eunate dena sortuz. Txantrea osoko ikasleak joaten dira Eunatera Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza burutzeraz, batez ere Bernart Etxepare Lehen Hezkuntzako ikastetxetik ateratzen direnak. Batxilergoan, ordea, beste hainbat tokitako ikasleak batzen dira bertan, besteak beste: Erronkari, Otsagabia, Larraintzar, Agoitz, Berriozar eta Ochoa de Olza ikastetxea. Testuinguru desberdinetako hainbeste ikasle batzeak eragina izango du ikastetxearen testuinguru soziolinguistikoa.

Euskararen erabilerari dagokionez, hainbat astetako behaketa baten ondoren, atera dudan konklusioetako bat da ikasgelatik kanpo euskara izaki mitologiko bat dela orokorrean. Txirrinak jo, eta ikasleak kalera ateratzen direnean giro euskaldun hori amaitu egiten da. Ikasgelan bertan, askotan gaztelania da haien artean komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntza nagusia. Hala ere, talde batzuetan, txantxa moduan bada ere, klase ordu osoa ematen dute euskara erabiltzen.

### 3.2.3. Ikasgelak

Jarraian aurkeztuko diren jarduerak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako hiru klasetan eta Batxilergoko 1. mailako klase batean eraman dira praktikara. 4. mailako bi klasetan (A eta B) 19 ikasle daude, hirugarrenean (C) 17 eta batxilergokoan 28. Batxilergoan beste tokietako jendea Eunatera joaten den arren, DBHn, ikasleriaren gehiengoa Txantreakoa bertakoa da, eta esparru sozialean gutxienez, antzeko testuinguru bat partekatzen dutela esan daiteke. Hala ere, kontuan izan behar da eskolatik eta lagun taldetik kanpo bakoitzaren errealitate linguistikoa oso ezberdina dela.

## 3.3. METODOLOGIA

Esan bezala, unitate didaktikoaren nondik norakoak zehazteko [galdetegi](#)<sup>1</sup> bat helaraziko zaie ikasleei klaseekin hasi baino lehen. Hala ere, eredu orokor bat proposatuko da, gero moldatuko dena egoerak horrela eskatzen badu.

Galdetegiak hiru atal ditu. Sarrerakoan ikasleen datu orokorrak eskatuko dira, hala nola, adina, bizilekua eta ama hizkuntza. Haien identitatea ez zaie eskatuko, ez baita beharrezkoa bildu nahi diren datuak lortzeko. Datu horiei esker ikasleen testuinguru erreala ezagutzera hurbiltzea lortuko da. Bigarren zatian hainbat testuingurutan gehien erabiltzen duten hizkuntza zein den galdetuko zaie, hots, gaztelania edo euskara. Bertan testuinguru informalak dira nagusi, hala nola, aisialdia, etxea edo

---

<sup>1</sup> Galdetegia sortzeko *Google Forms* tresna erabili da. Ikusteko jo ondoko estekara: <https://docs.google.com/forms/d/e/1FAIpQLSfwJ-DiN0wHKuNOAj8usPvaiqnhBQd2fpEa7DxrOdzKwCJjw/viewform>

institutua (klasetik kanpo). Azken atalean, oro har, euskararen inguruko jarrerari eta jakinduria mailari buruz galdetuko zaie. Besteak beste, esparru formaletik kanpo ezagutzen dituzten hitzak esatea eskatuko zaie, hala nola, biraoak edo ligatzeko formulak. Gisa berean, euskararen inguruan zer nolako iritzia duten galdetuko da, askotan uste baitute euskara txarra edo zikina egiten dutela gaztelania erabiltzeagatik. Helburu nagusia, beraz, ikasleen egoera zein den ezagutzea da unitate didaktikoa praktikan jarri baino lehen, unitatea bera moldatzeko beharrezkoa bada, eta geroago emaitzekin alderatzeko.

Datu horien arabera, eta aurreikusitakoa kontuan hartuz, hainbat jarduera prestatu dira euskararen erregistro informala lantzeko. Metodologiari dagokionez, metodo komunikatiboa izango da nagusi unitatearen proiektuan. Hau da, ikasleen komunikazio gaitasuna garatzea bilatuko da, kasu honetan, eskolatik kanpoko egoera batean. Horretarako, klaseak logikoki ikastetxean eman behar direnez, rol jokoen antzeko teknika bat erabiliko da, nahiz eta ez den guztiz berdina izango. Rol jokoetan, normalean, parte hartzaile bakoitzari rol jakin bat esleitzen zaio, eta proiektua egiterako orduan bakoitzaren paperaren hautua librea izango da. Testuinguru batzuk emango zaizkie proposamen gisa, baina haiek nahi dutena erabakitzeke aukera izango dute, hots, testuinguru horrek euskara informalaren erabilera eskatzen badu.

Unitate didaktikoa lagungarria izango da Nafarroako Foru Komunitateko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculumean aipatzen diren hainbat gaitasun garatzeko, batez ere:

- Hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna
- Gaitasun sozial eta herritartasuna
- Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala
- Autonomia eta ekimen pertsonala

Komunikazio gaitasunaren barruan, bai ahozkoa, baita idatzizkoa ere landuko dira, gaur egun biak asko erabiltzen baitira. Urte batzuk atzera joz gero, erregistro informala nagusi zen ahozko hizkeran, baina gaur egun, teknologia berrien eta komunikatzeko modu berrien ondorioz, idatzizkoan ere asko ikusten da. Sare sozialetan eta txatetan, gehienetan, lagunarteko komunikazio egoerak gertatzen dira, eta horiek euskaraz egitea bilatuko da. Proiektuak, beraz, bi zati izango ditu: lehenengoan, ahozko ekoizpena landuko da, eta bigarrean, idatzizkoa. Proiektuak bilatzen duena elkarrizketak sortzea da, eskolatik kanpo eta lagunaren artean erabiltzeko aproposak direnak, eta horretarako taldeka jarriko direnez, gaitasun soziala garatzeko aukera aproposa izango da.

Gaitasun digitala garatuko da proiektua aurrera eramateko teknologia berrien erabilera ezinbestekoa izango delako. Proiektuaren idatzizko atalean, *WhatsApp* bidezko elkarrizketa bat sortuko dute, eta horretarako mugikorra erabiltzen utziko zaie. Elkarrizketa mugikorrean bertan egin, eta pantailari argazki bat ateraz aurkeztuko dute proiektuaren zati hori. Ahozkoaren kasuan, antzekoa izango da prozedura, baina argazki bat erabili ordez, bideo bat grabatu beharko dute testuinguru informal bat irudikatuz. Gainera, proiektua burutzeko emango zaien baliabideen artean, gehienak sarean aurkitzen dira.

Baliabideak emango zaizkien arren, bakoitzak zer erabiliko duen eta nola erabakiko du, lana nahiko librea izango baita modu horretan ikasle bakoitzaren autonomia eta ekimen pertsonala sustatuz.

### **3.4. BALIABIDEAK**

Unitate hau egiteko zenbait baliabide erabili dira, hots, ez da guztia zerotik sortu. Horien artean, Berriak argitaratutako *Irainak euskaraz*<sup>2</sup> (2018) eta *Gazteen esamoldeak*<sup>3</sup> (2020) bideoak erabili dira. Lehenengo bideoa unitatearen lehenengo ariketan erabili da, eta helburua ikasleek euskaraz iraintzeko dagoen aniztasuna ezagutzea da. Bigarrena, lagungarri bezala aurkeztu zitzaizen proiektua egiteko, nahiz eta klasean zuzenean ez zen landu. Bertan hainbat gazte agertzen dira egunerokotasunean erabiltzen dituzten esamoldeak esanez eta haien esanahia azalduz. Bideoak aukeratzeak arrazoi bat du atzean, ikasleen arreta bereganatzea, normalean ez baitiote kasu berdina egiten bideo bati edo testu bati.

Aurreko esamoldeei buruzko bideoaz gain, [urtxintxa.eus](http://urtxintxa.eus)<sup>4</sup> web orrialdeko atal bat ere aurkeztu da klasean. Bertan, esparru informaletan erabiltzen diren esamolde banku bat dago, eta ikasleek haien proiekturako erabili beharko dute web orria edo aipatutako bideoa. Hainbat gaiei buruzko esamoldeak agertzen dira web orrian, besteak beste: adar jotzea, ligatzea, haserretzea, agurrak, mozkor kontuak, diru kontuak...

---

<sup>2</sup> <https://youtu.be/ip128s15Y0I>

<sup>3</sup> <https://youtu.be/EkT3LAl4rE0>

<sup>4</sup> <https://www.urtxintxa.eus/jolasguneak/gazte-hizkera/>

Azkenik, bigarren jarduera diseinatzeko Salaberri eta Zubiriren *Biraoak. Nafarroan bilduak* (2007) erabili da, bertatik hainbat birao eta esanahia hartzeko. Jardueraren xedea ikasleek biraoak haien esanahiekin lotzea da, eta *Irainak euskaraz* bideoan birao horietako batzuk aipatzen diren arren ez da haien esanahia ematen.

Baliabide teknologikoei dagokienez, galdetegia egiteko eta datuak biltzeko *Google Forms* tresna erabili da, aurretik aipatu den bezala. Tresna horren abantaila nagusia emaitzak emateko modua da, modu bateratu eta txukun batean ematen baititu. Jarduerak egiteko fitxa bat eman zaien arren, proiektua aurkezteko *Google Classroom* erabili da, bertan lan guztiak batera gordetzea erraztuz. Azkenik, haien mugikorra izan da tresnarik garrantzitsuenetarikoa proiektuan, bai idatzizko elkarrizketak egiteko baita bideoak grabatzeko ere.

### 3.5. JARDUERAK

Unitatean proposatu diren jarduera desberdinak hobeto azaltzeko saioka banatuko da puntu hau. Orokorrean, bi saio izan dira beharrezkoak unitatea praktikan jartzeko, baina beharrezkoa izatekotan hirugarren saio bat ere utziko zaie. Dena den, hori ez da kontuan izango eta 55 minutuko bi saiotan banatuko da hurrengo azalpena, unitatea diseinatu zen momentuan aurreikusi zen bezala.

Lehenengo saioan, galdetegia betetzea izango da hasierako zeregina, eta horretarako 10-15 minutu utziko zaizkie ikasleei. Aukerarik balego, egokiena galdetegia aurreko saioaren batean betetzea izango litzateke, ariketekin hasi baino lehen, gehiegi luzatzen bada denborarik gabe ez gelditzeko. Behin galdetegia amaitzean, bertan agertutako hainbat alderdi aipatuko dira ozenean, eta jarraian fitxan agertzen den lehenengo ariketari ekingo zaio. Osotara 10 minutu inguru iraungo dituen ariketa horretan, *Irainak euskaraz* bideoa ikusi, eta bakoitzak ezagutzen ez zituen bost birao edo irain idatzi beharko ditu. Ondoren, ikasle bakoitzak apuntatu duenetako bat esango du ozenean. Fitxako bigarren ariketan, hainbat birao agertzen dira zutabe batean, eta ondoko zutabeen haien esanahiak, baina modu nahastu batean. Ikasleek biraoak irakurri eta haien esanahiarekin lotuko dituzte, nahiz eta esanahia zein den ez ezagutu, haien intuizioaz baliatuko dira. Zuzentzeko orduan, irakasleak galdetuko die ea zergatik aukeratu duten esanahi hori, eta gero, berak azalduko die esanahiaren zergatia. Ariketa honek ere 10 minutu eskatuko ditu gutxi gorabehera. Bi ariketa hauen helburua ikasleak hizkera informalararekin harremantzen hastea da, eta beraz, proiektuaren sarrera modura baliatuko dira. Behin horiek eginak, eta proiektuarekin hasi baino lehen, azalpen teoriko labur bat emango zaie.

Azalpen teoriko horren helburua euskara informalaren hainbat ezaugarri azaltzea da, gero haien proiektuetan erabiltzeko. Euskara informala arautua ez dagoen zerbait denez, askatasun handia izan dut alderdi teorikoak aukeratzeko, baina bilatzen dena hainbat ezaugarri baliogarri ikastea da, normalean gaztelania erabiltzen duten momentu horietan euskara erabili dezaketela jakiteko. Azaldutako ezaugarriak ondorengoak dira:

- Birao eta irain askotarikoak erakustez gain hauen egiturari buruz hausnartzeko eskatuko zaie, ea errepikatzen den ezaugarririk ikusten duten. Azalduko zaie, euskal biraoetan oso ohikoa dela animalien izenak eta hitz elkartuak topatzea, saioan zehar ikusitako adibideak lekukotasuntzat hartuz.
- Esamoldeak azaldu baino, adibideak ikusiko dira. Adibide horiek aplikatzeko testuinguruak eta momentuak aipatuz. Horretarako oso erabilgarria izango da *Gazteen esamoldeak bideoa*.
- Esamolde hauekin lotuta adierazkortasunaren garrantzia aipatuko da, hau da, hitz baten esanahia esaten den moduaren arabera alda daitekeela.
- Hitzen arteko loturak erabiltzeko beharra ere azalduko zaie, nahiz eta euskara informalaren berezko ezaugarria ez izan, baizik eta ahozko euskararena. Hurrengo loturen ahoskerak aipatuko dira, eta ahozko lanean aplikatuko dituzte (idatzizkoan nahi izanez gero ere bai) (Euskaltzaindia, 1998):
  - $z + d \rightarrow /zd/$  (Adibidez: ez dago  $\rightarrow$  *eztago*)
  - $z + g \rightarrow /zk/$  (Adibidez: ez gara  $\rightarrow$  *ezkara*)
  - $z + z \rightarrow /tz/$  (Adibidez: ez zaude  $\rightarrow$  *etzaude*)
  - $z + n \rightarrow /n/$  (Adibidez: ez nintzen  $\rightarrow$  *enintzen*)
  - $z + b \rightarrow /zp/$  (Adibidez: ez bada  $\rightarrow$  *ezpada*)
  - $z + l \rightarrow /l/$  (Adibidez: ez luke  $\rightarrow$  *eluke*)
- Aginteraren erabilera eta aditz laguntzaileen elipsia lotuta daudela nolabait baina ez dira gauza bera. Agintera, logikoki, ez da euskara informalaren ezaugarria berez, baina testuinguru informaletan eta elkarrizketetan asko erabiltzen da, horregatik komeni da aipatzea. Bai aginteran, baita beste moduetan ere, aditz laguntzaileak ezabatzeko joera ikusten da askotan. Adibidez, ez zaigu arrotza egingo *har ezazu txirrindula eta joan zaitez etxera* esan ordez, *hartu txirrindula eta joan etxera esatea*.
- Sakonduko ez den arren, euskararen hizkera alokutiboa aipatuko da, hots, hika edo noka eta toka. Besterik gabe jakin dezaten, azalduko da euskara informalaren adierazgarri bat dela, baina ez da beharrezkoa izango haien proiektuetan erabiltzea.

Bigarren saioari hasiera emateko, aurreko egunean ikasitako teoria birpasatu eta proiektuari ekingo zaio. Esamoldeak freskatzeko, eta berri batzuk ikasteko, Berriaren *Gazteen esamoldeak* bideoa jarriko da klasean, baina ez zaie ariketarik egiteko eskatuko, ideiak hartzea besterik ez. Gauza bera egingo da urtxintxa.eus web orriarekin, hau da, bertatik ideiak hartu ditzaten orria aurkeztuko zaie, besterik gabe. Haien lana izango da geroago web orrian sartu eta informazioa eta baliabideak bilatzea.

Proiektuarekin hasi aurretik, noski, honen gorabeherak eta bete beharrekoak azalduko zaizkie. Aipatu den bezala, eta unitate didaktikoaren fitxan ikusten den moduan, proiektuak bi atal izango ditu: *Whatsapp* bidezko elkarrizketa baten ekoizpena, idatzizko hizkera informala lantzeko, eta bideo baten ekoizpena, ahozko hizkera informala lantzeko. Atal bakoitzerako testu desberdin bat ekoiztu beharko dute ikasleek, hots, printzipioz ezin da testu berdina bi ataletan erabili. Luzerari dagokionez, esan da idatzizkoak gutxienez 10 mezu izango dituela (15 hirukoteen kasuan) eta bideoaren gehienezko iraupena minutu batekoa izango dela. Gainera, atal bakoitzean gutxienez bi birao edo irain eta bi esamolde erabiliko dituzte derrigorrez. Hitzen arteko loturak erabiltzea eskatuko zaie ere bai, ahozko zatian batez ere, eta noski, euskaraz egitea lan guztia.

Irizpide horiek guztiak argi izatean, lanari ekingo diote ikasleek klasean bertan. Printzipioz saio honetan bertan izan beharko lukete proiektua aurkezteko moduan, baina denborarik ematen ez badu, hirugarren saio baten zati bat ere utziko zaie amaitu dezaten.

Aipatutako jardueren denboralizazioa modu bisualago batean adierazi da hurrengo taulan:

SAIOA	JARDUERA	DENBORA
1. SAIOA	Galdetegia egin eta komentatu	15'
	<i>Irainak euskaraz</i> bideoa eta ariketa	10'
	Biraoak eta esanahiak lotu	10'
	Teoria azaldu	20'
2. SAIOA	Errepasatu eta proiektua azaldu	10'
	Esamoldeak ( <i>urtxintxa</i> web orria eta <i>Gazteen esamoldeak</i> bideoa)	10'
	Proiektua	35'

### 3.6. EMAITZAK


Unitate didaktikoak hainbat zati dituzenez, emaitzak aztertzeko modurik egokiena atal desberdinetan banatzea da, zehazki lau ataletan. Lehenengoan, unitate didaktikoaren hasieran egindako galdetegiaren galdera guztien emaitzak aipatuko dira. Bigarrenean, behaketaren bitartez ateratako hainbat ondorio. Jarraian, unitate didaktikoa praktikan jarri diren saioen laburpen eta balorazio bat egingo da. Amaitzeko, arlo praktikoa honen hasieran aipatutako helburu eta hipotesietara bueltatuko da, horien inguruan hausnarketa bat egiteko eta ea bete diren ikusteko.

#### 3.6.1. Galdetegiaren emaitzak

Aurretik aipatu den bezala, galdetegiak hiru zati nagusi ditu, eta puntu honetan hiru atal horien emaitzak aztertuko dira. Lehenengoa orokorragoa den arren, galdegaien datuei buruz galdetzen baitu, hurrengoetan euskararen erabilerari garrantzia handia emango zaio. Kontuan izan behar da galdetegia modu anonimo batean egin dela, eta beraz, ezinezkoa da jakitea ikasle bakoitzak erantzundakoa. Horregatik, datu gehienak modu orokor batean aipatuko dira, eta horiek hobeto ulertzeko grafikoak erabiliko dira. Osotara, lagina 79 pertsonakoa izan da, nahikoa hainbat emaitza interesgarri ateratzeko.

Hasteko, adina, sexua, bizilekua eta ama hizkuntza zehazteko eskatu zitzaizkien ikasleei. Adinari dagokionez, 18 urteko pertsona bat izan ezik, inkestatutako guztiak 15-17 urteko tartean kokatzen dira, gehiengoak 16 urte dituelarik. Dena den, galdetegia erantzun duten ikasle gehienak ikasmaila berekoak izanda, galdera honen emaitza aurreikus zitekeen. Bizilekua aurreikusteak erraza zen ere bai, institutuaren ikasleen jatorria kontuan hartuta. Gauzak horrela, inkestatuen ehunekorik altuena Txantrea auzoan eta inguruan (Errotxapea, Antsoain eta Berriozar) bizi da, baina Agoitzeko lau ikaslek eta Iزابako batek ere parte hartu dute galdetegian.

Sexua  
79 erantzun






Ikerketa honetarako sexuak ez du informazio gehiegirik emango, baina aipatzea inkestatuen artean desberdintasuna ez dela handia. Inkestan parte hartu duten ikasleen artean, 45 neska (% 57) eta 34 mutil (% 43) daude.

Zein da zure ama hizkuntza?


79 erantzun



Inkestatuen gehiengoak (% 58,2) gaztelania hartzen du ama hizkuntzatzat, eta % 21,5-ak bai euskara baita gaztelania ere hartzen ditu, maila berean. Euskara ama hizkuntza bakarra bezala duten ikasleak % 19-a dira, eta bakar batek Ukraniera du ama hizkuntzatzat. Datuei erreparatuz ikusten dugu hiru laurdenak baino gehiago duela gaztelania ama hizkuntzatzat, gaztelania bakarrik eta euskara eta gaztelania dutenen ehunekoak batuz. Gainera, jakin beharko genuke euskara eta gaztelania ama hizkuntza bezala hautatu dituzten ikasle horien artean bakoitzaren eragina nolakoa izan den.

Horretarako, baliogarria da egin den hurrengo galdera: *Zein hizkuntzarekin sentitzen zara erosoago?* Kasu honetan, gaztelaniak modu nabarmen batean irabazten dio euskarari, inkestatuen % 81 gaztelaniarekin sentitzen baita erosoago. Euskarak, kasu honetan, % 12,7-a besterik ez du hartzen, eta gainontzekoek bi hizkuntzekin eroso sentitzen direla edo egoeraren araberakoa dela erantzun dute.

Galdetegiaren bigarren zatian hainbat testuinguru proposatu zaizkie ikasleei, eta haiek testuinguru horietako bakoitzean euskara edo gaztelania erabiltzen duten erantzun dute. Kasu honetan ez zaie biak erantzuteko aukerarik eman, eta zalantza izan dutenean gehien erabiltzen dutena markatzeko eskatu zaie. Galdera zehatza *Hurrengo esparruetan zein da gehien erabiltzen duzun hizkuntza?* izan da, eta jarraian agertzen diren grafikoetan erantzunak daude ikusgai.



Galdera horren emaitzei erreparatzean hainbat ondorio esanguratsu atera daitezke. Hasteko, begirada batekin ikusten da gaztelania testuinguru gehienetan gainjartzen zaiola euskarari, baina auzoko testuingurua ezagututa aurreikus zitekeen zerbait da. Dena den, esparru gehienetan bi hizkuntzen arteko aldea ikaragarria da. Proposatutako testuinguru guztietan, bi kenduta, % 75-ak baino gehiago gaztelania erabiltzen du. Kalean % 97,4-ak gaztelania erabiltzen du eta % 2,6-ak euskara, ia-ia lagunekin gertatzen den bezala, non % 98,7-ak gaztelania aukeratu duen eta % 1,3-ak euskara. Telebista ikustean eta *Whatsapp* bidez komunikatzean datuak errepikatzen dira, eta % 93,7-ak gaztelania erabiltzen du euskararen gainetik, euskara gehiago erabiltzen dutenak % 6,3-a izanik. Eskolaz kanpoko jardueretan eta etxean euskararen erabilera igotzen da, baina gaztelania nabarmen nagusitzen da testuinguru horietan ere bai. Eskolaz kanpoko jardueretan euskara gehiago erabiltzen

du % 14,1-ak, gaztelania gehiago erabiltzen duen % 85,9-aren aurka. Etxean, gaztelania erabiltzen dutenek % 75,9-a osatzen dute, eta euskara gehiago erabiltzen dutenek % 24,1-a.

Galdetegiaren bigarren ataleko daturik aipagarriena institutuan egiten duten erabilerari buruz galdetzean agertzen da. Institutuan bertan, bi testuinguru desberdinei buruz galdetu zaie: klasean dauden bitartean eta klasetik kanpo. Klasean dauden bitartean, lehenengo aldiz planteatutako testuinguru guztietan, euskara nagusitzen zaio gaztelaniari. Inkestatuen artean, euskara gehiago erabiltzen du % 75,9-ak klasean daudenean, eta % 24,1-ak gaztelania. Klasetik kanpo, ordea, oso errealitate desberdina aurkitzen da. Inkestatuen % 100-ak klasetik kanpo, baina institutuan bertan, gaztelania erabiltzen du.

Amaitzeko, galdetegiaren azken atalean ikasleei haien euskararekiko jarrerari eta euskara informalarari buruzko hainbat galdera ireki planteatu zaizkie. Galdera irekiak direnez, ez dira erantzun guztiak komentatuko banan-banan, aipagarrienak baizik eta orokorrean errepikatu diren gauzak.

Atal honetako lehenengo galderak testuinguru informaletan euskaraz egiteko duten erraztasunaren inguruan dihardu: *Ligatzeko, txistek kontatzeko, eta abar, euskara erabiltzea erraza egiten zaizu? Nola ligatuko zenuke norbaitekin euskaraz?* Baten batek baietz erantzun duen arren, hau da, erraza egiten zaiola, gehiengoak ezetz esan du. Ikasle askok erantzun dute ez dutela ez gaztelaniaz ez euskaraz ligatzen edo txisterik kontatzen. Hainbatek erantzun dute euskaraz zailagoa egiten zaien arren, egin behar izatekotan gaztelaniaz egiten duten moduan egingo luketela. Galdera irekia denez, inkestatuetako askok ez dituzte bi galderak erantzun, eta bai edo ezko erantzuna ematera mugatu dira. Erantzun batean aipatzen da euskaraz ligatzeko mugikorra erabiliko lukeela, agerian utziz ahozko hizkera informalean gabeziak aurkitzen direla ikasle hauen artean. Beste ikasle batzuek ligatzeko teknika edo formula batzuk eman dituzte, baina euskarazko berezko esamolderik ez da ikusten. Jarraian irakur daitezke erantzunetako batzuk:

<b>1. GALDERA</b>	<b>Ligatzeko, txistek kontatzeko, eta abar, euskara erabiltzea erraza egiten zaizu? Nola ligatuko zenuke norbaitekin euskaraz?</b>
<b>ERANTZUNAK</b>	<i>Horretarako ez dut euskara erabiltzen</i>
	<i>Ez dut ligatzen eta txistek gaztelaniaz kontatzen ditut.</i>
	<i>Erraza egiten zait baina batzuetan erdarazko txistek euskaraz kontatzean, ez du zentzurik</i>

	<i>Ez, nik hurbilduko nintzateke eta belarrira goxo goxo xuxurlatuko nion ze gaup@ zauden</i>
	<i>Batzuetan zaila egiten zait euskara erabiltzea. Norbaitekin euskaraz mugikorrarekin ligatuko nuke.</i>
	<i>Ez, beti gazteleraz egiten dut ligatzean. Kostatuko zitzaidan, baina azkenean berdin egingo nuke.</i>
	<i>Ez, ez zait erraza egiten. Gaztelaniaz erabiltzen ditudan hitzak euskaraz erabiliko nituzke.</i>
	<i>Ez, oso zaila. Ba ez dakit, ez nago ohituta euskara asko erabiltzea eta gainera ligatzeko orduan euskarazko hitz apropos gutxi dakizkit gai honi buruz</i>
	<i>Beti gazteleraz egiten dut. Gazteleraz egiten dudan moduan baina euskeraz</i>

Bigarren galderan inkestatuei burura etortzen zitzaizkien birao guztiak idazteko eskatu zaie, eta hainbat aipatu dituzten arren, asko errepikatu dira. Eman dituztenak *tontolapiko, txerrikume, sasikume, kaiku, putakume, tuntuna, artaburu, zozo, pikutara joan, kabroi, ergel, kakati, txotxolo, astogorri, memelo, txoro, kakalardo, baboa, alu, sudurluze, txoriburu* eta *potroak jan* dira, baina inkestatuen gehiengoak bi edo hiru besterik ez ditu jarri. Bi ikasle egon dira zerrenda honen gehiengoa osatu dutenak. Gehien errepikatu diren biraoak *tontolapiko, txerrikume* eta *sasikume* izan dira, gehienek aipatu baitituzte.

Hirugarren galderak horrela dio: *Baliogarria ikusten duzu euskara eskolatik kanpo? Zertarako?* Kasu honetan, galdera erantzun dutenen artean, ia guztiek baietz erantzun dute, hots, euskara baliogarria dela eskolatik kanpo. Batzuek, ordea, ezetz erantzun dute, argudiatuz gaur egun guztia gaztelaniaz antolatzen dela eta hori dela toki gehienetan erabiltzen den hizkuntza. Baliogarria dela esan dutenen artean, askok defendatu dute euskara beste edozein hizkuntza bezain baliogarria dela, baina komunikaziorako erabileratik kanpo ezer gutxi zehaztu dute. Komunikatzeko balio horren barruan, besteak beste, gaztelaniaz ez dakien jendea, auzoko dendak eta tabernak, eta euskaldunen arteko elkarrizketak aipatu dituzte. Ikasle gutxi batzuek esan dute euskal kultura zabaltzeko, euskararen erabilera bultzatzeko edo honen biziraupenerako baliogarria dela. Hainbatetan errepikatu den ideietako bat lanari buruzkoa da, hau da, euskara baliogarria zaiela lana bilatzeko. Erantzun horietako batzuk hurrengo taulan agertzen dira:

<b>3. GALDERA</b>	<b>Baliogarria ikusten duzu euskara eskolatik kanpo? Zertarako?</b>
	<i>Bai, gure artean komunikatzeko</i>

<b>ERANTZUNAK</b>	<i>Bai, auzoko hainbat dendetan euskeraz gauzak eskatzen saiatzen naiz</i>
	<i>Bai, adibidez lanbide batetarako.</i>
	<i>Nire ustez bai euskara kultura eta euskal herriko kultura gero eta gehiago zabalteko.</i>
	<i>Bai, Euskal Herriko herrietan bizi den jendearekin euskeraz mintzatu ahal izateko</i>
	<i>Bai, beste pertsona batzuek ez ulertzeko eta lagunekin hitzegiteko</i>
	<i>Bai, iruditzen zaiguna baino askoz jende gehiago hitz egiten du euskaraz eta aproposa da beste hizkuntza batzuetan mintzatzea.</i>
	<i>Ez, gaur egun beti gazteleraz hitz egiten dizute leku guztietan</i>
	<i>Ez, dena gaztelaniarazko antolatuta dago</i>

Laugarren galdera, euskaraz hitz egiteko sentitzen duten presioari buruzkoa da. Galdetu zaie ea euskaraz egiteko presionaturik sentitzen diren eta zein zentzutan. Orokorrean, erantzun gehienek ezetz esaten dute baina salbuespenak daude. Salbuespen horien artean institutua da arrazoi nagusia, esaten dutenarengatik, euskaraz ez hitz egitea gauza larri bat dela erakutsi baitiete, eta ikasgaietan kalifikazio baxuagoak izateko arriskua dakar. Batzuek esaten dute lagunaren artean gero eta gehiago erabiltzen dela euskara, eta horrek haiengan presioa sortzen duela. Baten batek, presio hori bere hitz egiteko gabeziari atxikitzen dio, hurrengo erantzunetan ikusi daitezke salbuespen horietako batzuk:

<b>4. GALDERA</b>	<b>Presionatua sentitzen zara euskaraz hitz egiteko? Zein zentzutan?</b>
<b>ERANTZUNAK</b>	<i>bai, bestela euskerako nota geixten da.</i>
	<i>Pixka bat, zerbait gaizki esaten badut gaizki begiratuko didate sentitzen dudalako.</i>
	<i>Pixka bat, familia ia guztia euskaldunak garelako eta ia ez dut euskaraz hitz egiten.</i>
	<i>Bai. Askotan klasean esan digute euskeraz hitz egiteko eta askotan euskeraz ez mintzatzea oso larria iruditzen zaizu</i>
	<i>Bai. Irakasleek euskaraz hitz egiteko presioa jartzen digutela uste dut. Ulertzen dut baino ez nuke horrela egingo.</i>
	<i>Normalean ez, batzuetan lagunekin euskeraz hitz egitearen "beharraren" ondorioz, izan ere gero eta gehiago euskeraz lagunekin hitz egiten sahiatzen gara.</i>

	<i>bai klasean</i>
	<i>bai pixkabat. ez nagolako ohituta eta euskaraz mintzatzen naizenean oso urduri sentitzen naizelako.</i>
	<i>Bai, kostatzen zaidalako</i>

Hurrengo galderan, haien euskara informalko zailtasunen inguruan galdetu zaie, zehazki lagunartean euskaraz hitz egiteko zailtasunik duten, eta hala izatekotan zeintzuk. Erantzunetan, baiezkoak eta ezezkoak nahiko pareko ageri dira, baina zailtasunik ikusten ez dutenek esaten dute ohitura falta zaiela eta ez dutela asko erabiltzen. Zailtasunak aurkitzen dituztenen artean, asko errepikatzen da besteek euskaraz ez dakitela, eta horrek haiek euskaraz hitz egitea zailtzen duela. Beste arrazoi bat da euskaraz hitz egiterakoan gauza batzuk azaltzea gehiago kostatzen zaiela, eta deseroso sentitzen direla euskaraz. Deserosotasuna eta lotsa esamolde batzuk euskaraz ez jakiteari eta haien gaitasunari atxikitzen diote inkestatuetako batzuek, esanez euskara formala bakarrik ezagutzen dutela. Ohitura ere aipatzen dute, betidanik hitz egin dutelako gaztelaniaz, eta euskaraz zailtasun gutxi izan arren, ez zaie modu natural batean ateratzen.


<b>5. GALDERA</b>	<b>Lagunartean euskaraz hitz egiteko zailtasunik topatzen duzu? Zeintzuk?</b>
<b>ERANTZUNAK</b>	<i>Ez nago oso ohituta euskaraz hitz egitera, beraz batzuetan mintztzeko eta adierazteko zailagoa egiten zait, ez daukadalako hainbeste aisetasuna edo azkartasuna.</i>
	<i>Bai, ez gara eroso sentitzen eta arraroa egiten zaigu.</i>
	<i>Bai, normalean esamolde batzuk ez dakidalako esaten eta azkenean erderakak egiten ditut</i>
	<i>bai, batzuk ez dakite euskera</i>
	<i>bai asko. Ohitura konkretuki. Nire kasuan, lotsa asko ematen dit euskaraz hitz egitea, ba ez dagoelako ohitura handirik kalean hitzegiteko eta are gutxiago lagunekin hitz egiteko</i>
	<i>Gaztelaniaz hobe azaltzen naiz.</i>
	<i>bai, ez dudala guztiz dominatzen hizkuntza</i>
	<i>Ez, baino esaldi baten itzulpenetan bai.</i>

Jarraian, euskara gehiago erabiltzea gustatuko zitzaien galdetu zaie, eta galdera honen erantzunak nahiko homogeenak izan dira. Inkestatuen gehiengoak adierazi du gustatuko litzaiokeela

euskaraz aritzea bere eguneroko bizitzan. Ikasleetako batzuek zehaztu dute gainera, batez ere etxean, klasean eta lagunaren artean euskara gehiago erabili nahi luketela. Inkestatuen artean hiruk besterik ez dute adierazi erabiltzen duten euskararekin eroso sentitzen direla, edo ez dutela euskara gehiagorik hitz egin nahi.

Aurretik aipatu da askotan, euskal hiztunen artean, gaztelaniara jotzeko joera dagoela euskarazko hitzen bat ezagutzen ez denean, edo askotan, arrazoi garbirik gabe ere bai. Horri erreparatuz, ondokoa galdetu zaie ikasleei: *“Euskañola” erabiltzen duzu euskaraz hitz egiterakoan?* Inkestatuen artean, gehienek erantzun dute baietz, askotan edo batzuetan egiten dutela euskañolaren erabilera. Batzuek oso gutxitan erabiltzen dutela adierazi dute, eta kontrakoa ere egiten dutela, hau da, gaztelaniaz hitz egiten dutenean euskarazko hitzak erabiltzea. Euskañolaren erabilera gaitasun faltarekin lotzeko arrazoietakoa bat hurrengo galderak ematen du, ikusten baita ikasleek hitz bat ezagutzen ez dutenean gaztelaniara jotzen dutela, beste modu batean esan ordez.

Euskaraz zerbait esaten ez dakizunean gaztelaniara jotzeko joera duzu?  
79 erantzun



Azken aurreko galderan, eskolatik kanpo egiten duten euskararen erabilerari buruz galdetu zaie, zehazki ea zergatik ez duten erabiltzen, hala izatekotan. Erantzunak, kasu honetan, aurretik agertu den galdera batenaren oso antzekoak dira, bosgarrena. Oraingoan ere arrazoi berak eman dituzte: lagunaren ezjakintasuna, ohitura, erosotasuna, lotsa, eta abar.

9. GALDERA	Zergatik ez duzu euskara eskolatik kanpo erabiltzen? (Hala bada)
ERANTZUNAK	<i>Batzuetan eskolatik kanpo euskaraz hitz egiten dut lagunaren artean baina oso gutxitan edo hitz solteak erabiltzen ditugu.</i>
	<i>Denok gaztelaniaz egiten dutelako, orduan nik ere, bestelaz euskeraz egingo nuke.</i>

	<i>Gaztelaniaz hitz egitea errezago egiten zaidalako.</i>
	<i>betidanik gaztelania erabili dugulako</i>
	<i>Nire etxean eta betidanik gazteleraz erabili dudalako.</i>
	<i>Gaztelanirekin erosoago sentiten naizelako.</i>
	<i>Ohituta ez nagoelako eta euskaraz egiteko pentsatu behar dut "euskaraz hitz egingo dut orain."</i>
	<i>etxean bai baina etxez kanpo ohiturarik ez daukadalako</i>

Galdetegiarekin bukatzeko, euskararen irakaskuntzan zer aldatuko luketen galdetu zaie inkestatuei. Askok erantzun dute ez luketela ezer aldatuko, eta ez dakitela, baina batzuek hainbat gauza azpimarratu dituzte. Horien artean, klaseak praktikoagoak egitea edo hizketari garrantzi handiagoa ematea eta gramatikari gutxiago. Errepikatu den erantzunetako bat euskara formala bakarrik irakasten dela da, eta behar bezala ikusten dutela euskara informala ere hezkuntzan sartzea. Inkestan zehar ikusi den bezala, haien iritziz euskara ez erabiltzearen arrazoi nagusietako bat erregistro informala ez ezagutzea da. Ideia horiek guztiak biltzen dira jarraian agertzen diren erantzunetan:

<b>10. GALDERA</b>	<b>Zer aldatuko zenuke euskararen irakaskuntzan?</b>
<b>ERANTZUNAK</b>	<i>Metodologia, teoria gehiegi dagoela iruditzen zait, eta ikasteetxeetan ahozkoak oso gutxi lantzen dela.</i>
	<i>Nire ustez ez da materia ongi ematen. Erakusten dizkigute aditz, aditzlagun,... guztiak eta nola erabili teorikoki eta uste dut arazoa hori dela. Lehen gramatika erakusten digute eta gero nola hitz egin eta aldrebes izan beharko luke. Adibidez, txikia zarenean zure gurasoek ez dizute ematen boligrafo bat eta erakusten dizute nola idaztea, lehen erakusten dizute hitz egiten eta gero hori orri txuri batean jartzen. Gainera klaseko ariketak mierda bat dira eta ez da ezer ez ikasten.</i>
	<i>"kaleko euskera" erakustera bultzatzea. Ez esatea euskeraz hitz egin behar dugula. Euskeraz mintzatzeko giltza baizik</i>
	<i>Euskara ez formala jakitea</i>
	<i>Ikastetxean ahozko gehiago egitea</i>
	<i>Nik egingo nituzke klaseak dinamikoagoa jendea ez aspertzeko eta euskarako klaseetan oso eroso egoteko</i>



	<i>Kanpoan gehiago hitz egiteko ohitura hartzera erakatsi edo klasean gehiago hitzegiteko gomendatu.</i>
	<i>hitz egiteko ohitura gehiago sustatzea eta normalean erabiltzen ez diren aditzei garrantzi gutxiago ematea gehiago ulermenari eta hitz egiteko erraztasuna izateari emango nioke</i>

### 3.6.2. Behaketaren emaitzak

Galdetegitik ateratako ondorioez gain, behaketak ere hainbat gauzari buruz hausnartzeko aukera eman dit. Ikastetxean igarotako zazpi asteetan zehar, honen testuingurua gainetik ezagutu eta aztertzeke denbora nahikoa izan dut.

Hasieratik ikusi zen euskararen erabilera klasean nahiko xumea zela, eta klasetik kanpo hutsala. Irakaslearekin, gutxienez, ikasle gehienek euskara erabiltzen zuten, baina ez guztiek. Batzuek gaztelania erabiltzen zuten bai haien artean hitz egiteko baita irakasleari zuzentzeko ere, eta irakasleak zuzentzen zituen arren, aste horietan zehar joera hori ez zen aldatu. Ikasle batzuek, gainera, euskara ulertzeko arazoak zituzten eta gauzak errepikatu behar zitzaizkien argi geratzeko. Galdetegiko erantzunetan nahiko ongi islatu da errealitate hori, ikusi baita gaztelania zela hizkuntza nagusia institutuaren barruan ere bai, eta euskara nagusitzen den toki bakarra klase barruan den arren, ez du guztiz gaztelaniaren tokia hartzen.

Euskaraz hitz egiterakoan, gehienek gaztelaniako hitzak eta esaldiak erabiltzen dituzte, hots, Kode Alternantzia (KA) erabiltzen dute modu sistematiko batean. Esan liteke haien lexikoan hainbat hitz ez direla euskara existitzen, eta gaztelaniako hitzengatik aldatu dituztela. Kasu horietako askotan, zalantzarik gabe, KAren erabilera euskarako hizkuntza gaitasunari atxikitzen zaio, ez baitira gai euskaraz adierazteko. Arlo teorikoan ikusitako hainbat ideia praktikan ikusi dira, hala nola, emozioak adierazteko orduan euskara erabiltzea zaila egiten zaiela, edo zenbaitetan ez direla ezta saiatu ere egiten.

Alderantzizkoa ere hainbat aldiz entzun da klasean, hau da, gaztelaniaz hitz egitean euskarazko hitzak erabiltzea. Kasu horietako gehienetan, aurretik esan dena indartuz, esparru akademikoarekin lotutako lexikoarekin gertatzen zen. Institutuan ikusitako hitzak euskaraz besterik ez dituzte ezagutzen, eta gehienetan zuzenean edo forma aldatu gabe txertatzen dituzten, batzuetan hitz horien gaztelaniazko forma sortzen dute. Aldatzen ez dituztenen artean *batuketa*, *zatiketa*, *gehiketa*,

*kenketa, ingurumena, herritartasuna, gela* edo *arbela* bezalako hitzak daude, ikasgaietako edukiekin edo ikastetxearekin lotzen direnak. Beste hitz batzuen kasuan, aditzak batez ere, forma aldatuz euskarazko hitza gaztelaniara “itzultzten” dute. Horretarako, euskal aditzaren partizipioa oinarritzat hartu, eta gaztelaniaren *-ar* aditz bukaera batzen diote, jaso diren hurrengo adibideetan ikusten den moduan: *moldatauar, ondorioztatuar, garatuar* edo *aurkeztuar*. Gaztelaniaz hitz egitean, euskarazko hitzak besterik ez dituzte txertatzen, hau da, etiketa motako KA erabiltzen dute gehienetan. Aditz horien kasuan ere, gaztelaniaren perpausaren egiturak ez du aldaketarik jasaten, begira adibidez hurrengo esaldian gertatzen dena:

“Ha dicho que tenemos que *garatuar* las *erantzunas* porque si no no vale del todo.”

Diskurtsoko hizkera nagusia euskara denean, ordea, KAren erabilera areagotzen da, euskañol bezala izendatu den hizkera hori erabiltzeraino. Kasu horretan, mota guztietako KA aurkitzen da, eta etiketa asko errepikatzen den arren, perpaus artekoa ere askotan entzuten da. Horren adibide bat da ikasle bati entzundako *jartzen dit de los nervios* esaldia, besteak beste. Ikastetxean entzundako elkarrizketetan, perpaus tarteko alternantzia izan zen gutxien entzun nuena, seguruenik klasetik kanpo gehienek gaztelania hutsean hitz egiten zutelako, eta klase orduetan euskaraz.

### **3.6.3. Saioen balorazioa**

Orokorrean nahiko positiboa izan da proposamen didaktikoa praktikara eramatean honek izan duen erantzuna ikasleen partez. Aurreikusitako moduan garatu ziren saioak, nahiz eta bi ikasgelatan denbora gehiago behar izan zuten proiektua egiteko, eta ondorioz, hirugarren saio bat erabili genuen. Esan beharra dago, beste bi ikasgelatan, unitate didaktikoa bi saiotan egin zen arren, galdetegia aurreko saio baten amaieran egin zela. Beraz, ikasgela guztietan antzeko denbora eskaini zaio unitateari.

Galdetegia nahiko azkar eta ongi bete zuten, baina zenbait ikaslek, anonimoa zenez, txantxa moduan bete zituzten galderetako batzuk, edo zuzenean bete gabe utzi. Hala ere, izandako erantzun gehienek laguntza handia eskaini dute horien analisisa egiteko eta ikastetxea hobeto ezagutzeko.

Unitate didaktikoaren lehenengo ariketa Berriaren *Irainak euskaraz* bideoa ikustea izan zen ikasgela guztietan, eta irakasleek oso ongi erantzun zuten. Bideoak bere funtzioa bete zuen, ikasleen arreta bereganatuz eta haien interesa piztuz. Bakoitzak bost birao aukeratu zituen, eta gero bakarra

ozenean irakurri zuten. Bideoan hainbeste birao agertzen direnez, oso gutxi izan ziren errepikatu zirenak, eta euskaraz iraintzeko aniztasun handia dagoela erakusteko baliogarria izan zen.

Bigarren ariketan, hainbat birao haien esanahiekin lotu zituzten, eta honetan arazo gehiago izan zituzten. Biraoak ezagutzen ez zituztenez zaila egin zitzaaien haien esanahia ondorioztatzea, baina askok nahiko ongi egin zuten ariketa azkenean. Bi ariketa horiekin, esan bezala, haien euskara informala erabiltzeko interesa piztu zen, eta haien artean esamoldeak eta biraoak erabiltzen hasi ziren. Askotan txantxa moduan egiten zuten arren, lehen gaztelaniaz egiten zituzten hainbat elkarrizketa euskaraz egiten hasi ziren klasetik kanpo.

Teoria eta esamoldeak irakastean klaseak arretaz entzun zuen eta azkar barneratu gainera, beharbada aurreko ariketek piztutako interesaren ondorioz. Galdera gutxi batzuk agertu ziren, batez ere 4. mailako ikasgeletan hitzen arteko loturen ahoskerari buruz. Ikasmaila horretan ikasle bakar batek ezagutzen zituen aurretik hitzen arteko lotura horiek, baina batxilergoan hainbatek. Galdetu ondoren, esan zidaten euskarako C1 mailako azterketa ofiziala prestatzeko hautazko ikasgai batean landu zutela jada.

Proiektuari dagokionez, emaitza oso ona izan zen ikasleek hasieratik ekin baitzioten gogotsu lanari. Idatzizko zatia 20 bat minututan amaitu zuten ikasle gehienek, eta eskatutako irizpide guztiak errespetatu zituzten. Batzuek, gainera, hautazkoa zen arren, hitzen arteko loturen ahoskera idatziz ere adierazi zuten. Gehiengoak proposatutako testuinguruak alde batera utzi eta haienak sortu zituzten, guztiek ordea informala izatearen baldintza bete zuten. Ahozko zatia ongi atera zen ere, baina idatzizkoak baino eragozpen gehiago izan zituen. Hiru taldek gaizki ulertu zuten zeregina eta testu berri bat sortu ordez, idatzizkoan erabilitako berdina grabatu zuten. Guztiek sartu zituzten eskatutako biraoak eta esamoldeak, baina 4. mailako lan askotan hitzen arteko loturen ahoskera egokia ez zuten egin, batxilergoan ez bezala, non normalean ez erabili arren, lan guztietan errespetatu zen. Ebaluaziotik kanpoko ariketa bat zenez ez zaio kalifikaziorik jarri, baina talde guztiek bete dituzte minimoak eta erantzuna oso ona izan da ikasleen partetik.

#### **3.6.4. Helburu eta hipotesien balorazioa**

Unitate didaktikoa praktikan jarri baino lehen egindako helburu eta hipotesietara bueltatuko gara oraingo puntuan, eta esan beharra dago horietako gehienak bete direla hein batean. Helburu nagusia ikasleei euskara informala erabiltzen hasteko baliabide batzuk ematea zen, sarrera moduko bat eginez, normalean gaztelaniaz erabiltzen dituzten esamoldeak eta abar euskaraz egiteko gai

izateko. Oso gainera izan bada ere, ikasleen erantzuna lagungarria izan da erregistro informaleko hainbat ezaugarri ulertu eta haien artean erabiltzeko. Proiektua egin duten bitartean, ikasitako lexikoa eta ezaugarriak erabili dituzte haien artean, bai klasean baita klasetik kanpo ere. Hala ere, proiektua azken egunean jarri denez praktikan ezin izan da aztertu epe luzean izandako eragina. Gutxienez, ulertu dute euskarak baduela izaera informala ere bai, nahiz eta ikastetxeetan normalean ez den ikasten.

Aurretik esan bezala, galdetegiaren helburua ikasleen testuinguru soziolinguistikoa ezagutzeko, institutuaren errealitatea hobeto ezagutzeko, eta hori ehuneko ehunetan bete da. Ikasleek zilegitasunez bete dute galdetegia, eta erantzunek hainbat datu aipagarri utzi dituzte.

Hipotesi bezala esan zen euskararen erabilera oso murrizta izango zela, eta galdetegian eta behaketan ikusi den bezala hori ere bete egin da. Ikusi da klasean bakarrik erabiltzen dutela euskara gehienek, eta hortik kanpo, institutuan bertan ere bai, desagertzen dela. Korridoreetan euskara desagertzea, hala ere, aurreikuspenetan ere aipatu zen, eta beraz, ez da ustekabeko zerbait izan.

#### **4. ONDORIOAK**

Amaitzeko, hasieran azaldutako arlo teorikoarekin, eta batez ere, arlo praktikoan ikusitakoarekin hainbat ondorio atera daitezke. Aipatu da, aditu askoren arabera KAren erabilera hiztunaren hautua dela eta ez hizkuntza maila baxuaren adierazle. Behin praktika eta behaketa eginda, berriz, ikusi da ikasle hauetako askoren kasuan gaztelania erabiltzea euskararen orde ez dela hautu bat, behar bat baizik. Hala ere, ikusi da KA beste fenomenoetatik bereizteko beharra, batez ere nahigabe egindako hutsegiteetatik. Beraz, zaila da ondorioztatzea hainbat kasutan KA kasu baten aurrean edo hutsegite baten aurrean gauden. Dena den, KAtzat hartzen bada praktikan ikusitakoa, argi geratu da Poplackek (1980) egindako sailkapenaren moten artean erabilienak etiketa eta perpaus barnekoak direla euskaraz hitz egiterakoan, gutxienez klasean. Gaztelaniaz hitz egitean, ordea, euskarazko hitzak etiketa moduan besterik ez dira entzuten.

KAren funtzioen artean kolokialtasuna bilatzea aipatu da hasieran, eta ikusi da hori dela gazteen artean euskaraz duen gabeziarik handienetariko bat, ez baitute euskara informalik ezagutzen. Gabezia hori betetzeko, gaztelania erabili dute beti, eta beraz zaila da orain gaztelaniak duen paper hori euskaraz betetzea. Gazteei kalean euskaraz egitea arraroa egiten zaiela argi geratu da, ez baitute ohiturarik, eta askotan lotsa ematen die besteek pentsatuko dutena.

Galdetegian ikasleei euskara zergatik ez duten erabiltzen galdetu zaie, eta erantzunak askotarikoak izan diren arren, inor ere ez dio errua bere buruari bota. Ohitura eta lotsa alde batera utzita, inkestatutako gehienek argudiatu dute ez dutela euskara erabiltzen bere lagunek ez dutelako erabiltzen, nahiz eta lagun gehienak institutu berekoak izan eta euskara ezagutu. Erabilera eza motibazio eta ohitura faltari atxikitzea izan liteke egokiena gazte askoren kasuan, eta hiri handietan ohiturari batez ere. Gainera, argi geratu da institutuan bertan ere ez dutela euskara erabiltzen klasetik kanpo, nahiz eta gehiengoak adierazi duen gustatuko litzaizokela euskara gehiago erabiltzea. Beste arrazoietakoa bat erregistro informala ez ezagutzea izan daiteke, eta euskara esparru akademikora mugatzen den zerbait bezala ulertzea. Arazo larria da institutuan bertan euskara ez entzutea, eta horren inguruan modu orokor batean hausnartzeko beharra dago.

Proposatu den unitate didaktikoaren helburu nagusia hori zen, euskara informalki erabili daitekeen hizkuntza bat dela erakustea. Proiektua praktikara eraman den saioetan euskararen erabilera nabarmen areagotu den arren ikasleen artean, zaila ematen du epe luzean eragina izatea lantzen jarraitzen ez bada. Erregistro formala alde batera utzi gabe, informala lantzea izan daiteke aukera bat egoera hobetzeko xedearekin. Gainera, galdetegian ikusi da ikasleek euskararen irakaskuntzari ikusten dioten gabekia handiena ahozkoaren eta kaleko hizkeraren falta dela. Ikusi da euskañolaren aurkako iritzi asko daudela, baina egia da gutxi lantzen dela euskararen erregistro informala, eta ondorioz, hiztunek eta gazteek batez ere, ez dutela horren inguruko ezagutzarik gehienetan, herri euskaldunetatik kanpo.

## 5. BIBLIOGRAFIA

24/2015 FORU DEKRETUA, apirilaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumaz ezartzen duena.

Amonarriz, K. (2008). Gazte hizkerak-hizkera gazteak. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 68, 167-183.

Berria (2018). *Irainak euskaraz*. <https://youtu.be/ip128s15Y0I>

Berria (2020). *Gazteen esamoldeak*. <https://youtu.be/EKT3LAI4rE0>

Dussias, P. E., Kroll, J. F., Fricke, M. & Johns, M. A. (2020). Language in contact in the lab. In Adamou, E. & Matras, Y. (arg.) *The Routledge Handbook of Language Contact* (28-45. or). Londres/New York: Routledge.

Euskaltzaindia (1998). *87. araua: Euskara batuaren ahoskera zaindua*.

Ibarra, O. (2011a). *Nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoa*. Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

Ibarra, O. (2011b). Sobre las estrategias discursivas de los jóvenes vascohablantes: causas que motivan el cambio de código. *Oihenart*, 26, 277-298.

Iruñeko Udala (2020). *Población total barrio Txantrea a 2 de enero de 2020*.

Kasares, P. (2010). 20 urteko nafar euskaldun hori: Nafarroako euskararen egoera zenbait gazte euskaldunen bizipenetan. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 76, 101-123.

Ortega, A., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J. & Urla, J. (2016). *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

Perez, E. & Zulaika, E. (2016). Adierazgarritasun zantzuak euskal gazteen txatetan ;). *Gogoa*, 14.

Poplack, S. (1980). Sometimes I start a sentence in spanish y termino en español: towards a typology of code-switching. *Linguistics*, 18, (778), 581-618.

Salaberri, P. & Zubiri, J. J. (2007). *Biraoak. Nafarroan bilduak*. Iruñea: Pamiela.

Soziolinguistika Klusterra (2017). *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa*. Euskal Herria, 2016.

Txepetx [Sanchez, J.M.] (1991) *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del euskera y teoría social de las lenguas*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

Urtxintxa Eskola (d.g.). *Gazte hizkera*. <https://www.urtxintxa.eus/jolasguneak/gazte-hizkera/>, [2022/06/01].

ERANSKINA: *Euskaraz "gaizki" hitz egiten ikasten unitate didaktikorako fitxa.*

## EUSKARAZ "GAIZKI" HITZ EGITEN IKASTEN

**1. ARIKETA** Ikusi *Berria*-ren bideoa. Jarraian, apuntatu ezagutzen EZ zenituen eta gehien gustatu zaizkizun 5 biraoak.

---

---

---

---

---

**2. ARIKETA** Hurrengo hitzak haien esanahiarekin lotu (bi hitzek esanahi bera dute).

<ul style="list-style-type: none"><li>• Zipotz</li><li>• Betizu</li><li>• Firunda</li><li>• Potrohandi</li><li>• Tartar</li><li>• Ttarrapatt</li><li>• Sudurluze</li><li>• Alu</li><li>• Kontakatilu</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Bakartia dena, jendearekin ibiltzea gustoko ez duena.</li><li>• Kabroi.</li><li>• Txapuzeroa.</li><li>• Fundamentu gutxikoa</li><li>• Pertsona lasaiegia.</li><li>• Besteen kaltea bilatzen duena.</li><li>• Isiltzen ez dena.</li><li>• Besteen gauzetan muturra sartzen duena.</li></ul>
--	--

### 3. PROIEKTUA

a) **IDATZIZKOA:** beste orrialde batean, **Whatsapp bidezko elkarrizketa bat** asmatu beharko duzue binaka (10 mezu inguru) edo hiru (15 mezu inguru). Bertan gutxienez birao edo irain pare bat erabili behar dira. Saiatu ahalik eta naturalena izaten, eta eskolatik kanpo erabiliko zenukeen erregistroa erabili.



b) **AHOZKOA:** bigarren elkarrizketa bat asmatu beharko duzue, baina oraingoan **bideo batean grabatuko duzue** (1 min gehienez), gero emailaz bidaliko duzuen. **KONTUAN IZAN HITZEN LOTUREN AHOSKERA ETA BESTE EZAUGARRIAK.**

#### ERABILI GUTXIENEZ ESAMOLDE ETA BIRAO EDO IRAIN BAT LAN BAKOITZEKO

\* Lagunarteko esamoldeen ideiak hartzeko **Urtxintxa** web orria erabili dezakezue: <https://www.urtxintxa.eus/jolasguneak/gazte-hizkera/>

\* **Nahi duzuen testuingurua erabili dezakezue**, baina ideia batzuk uzten dizkizuet:

- Txantreako jaiak hastear daudela, antolatu ezazue koadrilan egingo duzuen plana.
- Lagun batekin haserretu zara konturatu zarelako galdu zenuen zerbait lapurtu zizula.
- Zure lagunik onena gustoko duzun pertsonarekin ligatzen ikusi duzu, berak gustoko duzula dakien arren.
- Zuen futbol taldeak 5-0 galdu egin zuen atzoko partidua bere arerioaren aurka.
- Udan bidai bat egiteko ideia izan duzu eta laguneri proposatu behar diezu egingo duzuen plana, baina haiek ez daude ados.
- Gustoko duzun pertsonarekin hitz egin nahi duzu baina ez dakizu nola hasi, eskatu aholkua zure laguneri.
- Gela osoak matematikako azterketa suspenditu du.